

MINTEGIA IKASTETXEAN

1. PRESTAKUNTZA MODALITATEAREN DESKRIBAPENA

Mintegia ikastetxean bertaratu beharreko eta bertaratu gabeko aldiak bateratzen dituen prestakuntza jardueraren modalitatea da. Gaian aditua den hizlari batek zuzentzen du eta bertan hezkuntzako gai bat sakontzen da aplikazio didaktiko handiagoarekin eta irakasleen inplikazio maila altuagoarekin.

Prestakuntza modalitate honetan eduki teorikoen garapena konbinatzen da nagusiki praktikoak diren proposamenekin, eta orientabideak ematen dira ikasgelan aplikatzeko modukoak diren mintegiko edukiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko. Hobekuntzarako esparrua izatea da oinarritzko helburua.

Jarduera bukatzean **Memoria** (3. DOK) bat aurkeztuko da, non egindako lana xehetasunez azalduko den. Memoria hori erreferente gisa hartuko da lanaren ebaluazioa egiteko.

2. MINTEGIA IKASTETXEAN. DISEINUA

- Mintegirako proiektua

Koordinatzaileak **Mintegiaren proiektua** prestatu eta ILZn aurkeztuko du, dagokion eskabide ereduaren erabiliz (2. DOK).

Egutegia prestatzerakoan, kontutan hartu beharko da azken saioan bai bertaratu gabeko fasean burututako lanaren batera-jartzea bai jardueraren ebaluazio orokorra egin behar direla.

Ordutegia prestatzerakoan kontutan hartu beharko da ordu lektibo, osagarri eta atsedendietan burutzen diren lantaldeak ez direla onartuko.

Behin proiektua prestatuta, ILZk haren bideragarritasuna aztertuko du eta aholkulari arduradun bat izendatuko du, beharrezkoa bada, taldearekin batera lan egingen duena proiektua taxutu eta zehazteko.

Proiektuak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 31 izanen da. Justifikatutako kasuetan, geroago egindako eskaerak hartuko dira.

Bertaratu gabeko aldia, betiere ez bada jardueraren orduen heren bat baino gehiago, behar bezala justifikatuta egonen da eskabidean, eta geroago xehetasunez azaldu beharko da mintegiaren memorian.

- Iraupena eta parte-hartzaileen kopurua

Iraupenari eta parte-hartzaileen kopuruari dagokionez, ikastetxean egiten diren mintegiek ondoren ezartzen denari jarraituko diote:

	GUTXIENEZ	GEHIENEZ
PARTE-HARTZAILEAK	8	---
ORDUAK	12	35

Salbuespen gisa, aurreko taulan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten jarduerak onartu ahal izanen dira, jardueraren ezaugarriak edo jarduera horren hartzaile izanen den kolektiboa kontuan izanda bidezko ikusten bada.

3. MINTEGIA IKASTETXEAN. KOORDINAZIOA

Koordinatzailea parte-hartzaileetako bat izanen da; hizlari gisa parte hartzen duen pertsona aditua ere izan daiteke koordinazio lan hori egingen duena.

Ondokoak izanen dira koordinatzailearen eginkizunak:

- Proiektua ILZn aurkeztea.
- Prestakuntza Ataletik dagokion esteka jasotzen duenean, parte-hartzaileen inskripzioa egin beharko du.
- Saioak deitzea eta ILZko aholkulari arduradunari jakinaraztea hasierako lan proiektuarekiko balizko aldaketak.
- Sinadura orrien ardura hartzea saio bakoitzean.
- Aldiro, bertaratu gabeko lanaren euskarri dokumentala biltzea, hala badagokio.
- Bitarteko gisa aritzea aholkulari arduradunarekin.
- ILZn aurkeztea, ezarritako denboran eta behar bezala, memoria, saio guztietako sinadura orriak eta, hala badagokio, prestatutako materialak.

4. EBALUAZIOA ETA EGIAZTAPENA

Behin lana bukatuta, koordinatzaileak memoria prestatuko du eta CD/DVD batean grabatuko du eta ILZra bidaliko du ebaluatu dezaten. Ebaluazioa positiboa bada, dagokion egiaztapena tramitatuko da.

Ebaluazioan gutxienez ondoko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Bertaratu beharreko saioen %80ra joatea (sinadura orriak).
- Mintegia diseinatu duen pertsona adituak esleitutako atazak egitea.
- Bertaratu gabeko fasearen banakako erregistroa aurkeztea. Erregistro hori azken memorian ere sartuko da (CD/DVDa).

Memoria eta, hala dagokionean, prestatutako materiala ILZn geratuko dira gordailuan. Material horiek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan zein ILZetako web orriaren bidez hedatu ahal izanen dira, betiere indarrean dagoen araudia errespetatuz.

Memoria, sinadura orriak eta prestatutako materiala ILZn aurkezteko azken eguna maiatzaren 31 izanen da.

Koordinatzaileari **koordinaziorako** erabilitako orduak egiaztatuko zaizkio. Parte-hartzaileen orduen kopuru osoa baino heren bat gehiago egiaztatu ahal izanen zaio, betetako eginkizunen arabera.

Pertsona adituari **hizlari** gisa egindako orduak egiaztatuko zaizkio.

Pertsona batek inola ere ez ditu lortuko bi egiaztapen desberdin jarduera batean izandako parte-hartzeagatik.

Ez dira egiaztatuko ikastetxeko mintegia onetsi baino lehen egindako orduak.

5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Mintegia sortzea eskatzeko:

- Mintegirako proiektua (2. DOK). Formatu elektronikoan aurkeztu behar da. Posta elektronikoz bidal daiteke dagokion ILZra.

Azken ebaluazioa egiteko eta ziurtagiria lortzeko:

- Sinadura orri originalak (Prestakuntza Ataleko idazkaritzak emanen ditu).
- CD/DVD bat (ez dira beste formatu elektroniko batzuk onartuko, kasu, postaz igortzea, dropbox-erako esteka etab.)). Bertan, ondoren aipatzen diren dokumentuak agertu behar dira:
 - Mintegiko memoria (3. DOK)
 - Prestatutako materialak, hala badagokio